

June Aiestaran Iparragirre

E maila • 1 saria

June Aiestaran nauzue, 12 urte ditut, eta Beasainen bizi naiz. 6.maila egiten ari naiz, Alkartasuna Lizeoan.

Asko gustatu zitzaidan Aitor Sarriegik Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan erabili zuen doinu berria, eta doinu horretan egin nituen bertso hauek. Gainera, abenduan, Iruñeako saioan izan nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan bere kartzelakoa, "nagusiari gin-tonica jaurti zionekoa". Hain zuzen ere, bere ateraldia baliatu nuen bertso hauek idazterakoan.

Ea gustatzen zaizkizuen!



MENDEKUA

Doinua: Irun badaukazu zerbait (Aitor Sarriegi)

1)

Atetik sartu naiz eta
hori zen hori piura,
txoriak kaka egin dit
goitik behera burura.
Afalorduan mahaian
ume txikien modura,
ahizpek barre egin dute,
gogotik nire kontura.
Niri burla eta burla
zebiltzan oso gustura,
nire artean nioen
"zuen festa bukatu da!".
Gogoratuz Iruñeko
Aitorren "gin-tonic" hura,
bat-batean bota diet
burutik behera ura (BIS).

2)

Amaren "mala letxea"
ez zen, gero, berriketa,
hurbildu eta egin dit
sekulako errieta.
Isil-isilik egon naiz
irribarrea gordeta,
ikaragarria baitzen
bi ahizpatxoek kasketa.
Nahiz eta modu okerra
hautatzen dudana tarteka,
tortilLari beti eman
behar omen zaio buelta.
Beraz, gaizki egin arren,
ez naiz jarriko erreta,
ahizpen tonto-aurpegiak
merezi izan du-eta! (BIS)